

MUSIKA

- **ARETXABALET**
Matraka. Gaztetxean gaueko 11etan.
- **ARRASATE**
Gipuzkoako VI Akordeoi Jaialdia. Institutuan gaur eta bihar.
- **BALMASEDA**
Tankard eta Beer Mosh. Kiroldegian 23.00etan.
- **BERBINTZANA**
Piskerra eta Deskarga. Goizaldeko ordubatean.
- **BERGARA**
Gamma Ray eta Rage. Txibisto dantzalekuan gaueko 11etan.
- **BERMEO**
Soinu Tantak Txistulari Bandaren kontzertua. Eupeme Deuna elizan 20.00etan.
- **BILBO**
Fosa Comun eta La casa Usher. Gaztetxean 20.30etan.
- **DEBA**
Sanchis y Jocano eta Elliot Murphy. Txixarro dantzalekuan gaueko 12etan.

MUSIKA



FUSTIÑANA
Soziedad Alkoholika
10.30etan

- **DONOSTIA**
Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren entseiu irekia. Miramongo egoitza 11.00etan. Alberto cortezen kantaldia. Victoria Eugenia Antzokian 20.00etan.
- **ELORRIO**
SS-77 eta Heriotza. Gaztetxean 22.00etan.
- **GETXO**
Julio Kageta eta Ezkixu. Txiki eta Otaegi plazan 22.30etan. EHEek antolatua.
- **FUSTIÑANA**
Soziedad Alkoholika taldearen kontzertua, gaueko 10.30etatik aurrera.
- **GERNIKA**
Pablo Sarasate Gazte Orkestraren kontzertua. Andre Mari elizan.
- **LAUDIO**
Whipe Out Skate. Skuatean gaueko 9.30etan.
- **OION**
Su Ta Gar eta LSD. Kiroldegian 23.00etan.
- **ONDARROA**
Tijuana in Blue. Gaztetxean gaueko 11etan.

ANTZERKIA

- **AZPEITIA**
Euskadiko IX Euskal Antzerki Topaketak. Bordaxuri taldeak 'Berantenaz seietan' antzezlan taularatuko du. Zelaitxo zinemaren 21.30etan.
- **BARAKALDO**
Atalaya taldeak 'Hamlet-maquina' lana antzeztuko du. Barakaldo Antzokian 20.00etan.

ANTZERKIA



BARAKALDO
Atalaya
20etan

Bihar ere ikusteko aukera izango da.

- **DONOSTIA**
Bederen 1 taldeak 'El ponche de los deseos' lana antzeztuko du Antzoki Zaharrean 20.00etan. Bihar ere ikusteko aukera izango da.
- **DURANGO**
Maxkarada taldeak 'Marxkarada' antzezlan eskainiko du. Dominical Aretoa 22.00etan. Bihar arratsaldeko 7etan.

- **GETXO**
IX Antzerki Ihardunaldiak. Tita Ta Floja taldeak 'Kaja ta kaja' lana antzeztuko du San Nikolas plazan 12.00etan. Toki berean, baina arratsaldeko 7.30etan Pikor taldeak 'Nor da da?' antzezlan eskainiko du. Producciones Udaberri taldeak 'Brindemos' antzezlan taularatuko du gaueko 10.30etan Gurea Zinemaren.

- **IRUÑEA**
Gran Wyoming eta Reverendok 'En la flor de la vida' lana taularatuko dute. E.N.T.n (San Agustin, 5) 20.00etan.

- **SESTAO**
Nazioarteko VII Txotxongilo Jaialdia. Flip y Robi taldeak 'La gondola fantasma' lana eskainiko du. Udal Kontserbatorioan 19.00etan.

KRITIKA

HORTENSIA TALDEA

Gozamena

MARXKARADA

Titulua: Marxkarada.
Taldeak: Markarada.
Aktoreak: Patxo Telleria, Mikel Martinez, Inazio Tolosa, Marife Berrojalbiz.
Zuzendaria: Karlos Panera.
Antzokia: Dominical Aretoa.
Herria: Durango.
Egunak: Abenduak 7 eta 8.
Iraupena: Ordu eta laurden.

Asteburu honetan Durango Euskal Liburu eta Disko Azoka dugunez, azokatik irten ondoren Maskarada taldea ikustera hurbil gaitzake 'Dominical Aretoa'. Ikustera baino gozatzera. 'Marxkarada' lanarekin hasieratik bukatu arte gozatu egiten dugulako.

Marx anaiak pertsonaiegan oinarritutako lana egitea apustu ausarta da, jakina. Izan ere, 'Marxkarada' ezagutu baino lehen horrelako lan bat 'ikustea' nahiko zaila iruditzen zitzaidan, baina 'Harritzko Arestri hau' edota 'Gaztibeltzaren karabinak' antzeztu dituen taldeak erraz gainditu du proba.

Taldearen hamargarren

urtemuga ospatzeko iaz kaleratu zuten lan honetako eszenografia oso leuna da eta horrela aktoreen papera gehiago nabaritzen da. Guztiz zaindutako karakterizazioak, landutako keinuek antzerkian gaudela ahanzt ezazten digute lehen momentutik, Marx anaien mundura eramaten gaituztelarik.

Groucho eta Chico bizkor mugitzen dira egoera batetik bestera, Harpo deliziosoa baten laguntzarekin. Flywheel, Ravelli, Astolfi eta Ruby izenez Maskarada taldeak figura hauek birsortzen ditu eta laugarren pertsonaia sartzen du: emakume bat.

Ardura handiz eginiko testuak Marx anaien umorez ezin hobeto isladatzen du, hitz jokoak eta zentzugabea egoera desberdinak erabiliz.

Oso piano berezia eta baita beste instrumento batzuk musika zuzenean jotzeko erabiltzen dituzte. Horrela Marx anaien alde musikala errespetatzen da eta Maskaradaren aurreko lanetan musika izan duen garrantzia mantentzen da.



SS-77 eta Heriotza taldeek kontzertu bat eskainiko dute gaur Elorrioren. Kontzertua gaztetxean izango da, gaueko hamarretatik aurrera.

LEHIAKETAK

- **ARETXABALET**
V Argazki eta Diapositiba lehiaketa. Euskadiko argazkizale guztiek har dezakete parte. Gaia: Mendia eta natura arlo guztietan. Lanak aurkezteko epea abenduaren 10ean amaituko da. Lanak bidaltzeko epea informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Murruko Mendizale elkartera jo (Posta kutxatila 34, 20550 Aretxabalet).

- **ARRIGORRIAGA**
VII Ipuin Lehiaketa, gaztelaraz edo euskaraz, Arrigorriagako Udalak antolatua. Maila bi bereiztu dira: 13 urtetik beherakoentzat eta, 14 urtetik 25 urtera bitartekoentzat. Gaia libre da. Lanak aurkezteko epea abenduaren 30ean amaituko da. Lanak aurkezteko helbidea: Arrigorriagako kultur etxea, Urgoiti paseoa 8.

- **BAKIO**
Idazlan lehiaketa Bakio Euskara Batzordeak antolatua. Adin banaketa: 7-10 urte, 11-14 urte, 15-18 urte eta 18 urtetik gorakoentzat. Lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaituko da eta Udaletxera eraman behar dira.

- **BILBO**
Ihauterietako kartela, 1992ko Ihauterietako Jai Batzordeak antolatutak. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 15ean amaituko da. Aurkezteko tokia: Bilboko Udala, Kultura eta Turismo saila. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Udaletxera jo.

- **IMAGINATU EUSKADI-IV** lehiaketa, Banco Hispano Americano-k antolatua: Argazki, pintura, ipuin eta poesia (Euskaraz zein gaztelaraz idatz daitezke). Lanak aurkezteko epea 1992ko urriaren 31an amaituko da.

- **BUSTURIA**
Ipuin Lehiaketa. Busturiko hamalau urtetik beherako neska-mutilentzat. Euskaraz edo gaztelaraz. Boligrafoz idatzita aurkeztu behar dira. Sariak donotzat daude. Ipuinak abenduaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira liburutegian.

- **DONOSTIA**
Donostiako Ihauteriak 1992 Kartelen Lehiaketa. Nahi duen guztiak har dezake parte. Gaia Ihauteria izango da. Lanak Kultur eta Turismo Ekintzetxean aurkeztu behar dira (Bengoetxea, 4), abenduaren 31n, eguerdiko ordubatak baino lehen. Informazio gehiago bertan edo telefono zenbaki honetan: 48 11 66.

- **XIV Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa.** Lanak aurkezteko epea abenduaren 9an amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea, Reina Regente kalea, 20003 Donostia. Informazio gehiago bertan.


- **ELBIRE ANDERENOIA** VIII sariaketa, Euskerazintzak antolatua: Olerki-sariketa eta Ipuin-sariketa. Lehenengo sariketarako umeentzako olerkiak izango dira eta ez umeek eginak (40-60 lerro). Eta, Ipuin-sariketa gaztetxoentzako da (16 urte baino gehiago ez dutenentzat). Sariaketa bi horietarako lanak 1992ko urtarrilaren 31rako aurkeztu behar dira. Helbidea: 'Euskerazaintza', Getaria 21, 20005 Donostia. Informazio gehiago jakin nahi

izanez gero ere, bertara jo.

- **EUSKAL HERRIA**
Bertso Paper Lehiaketa Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkarateak antolatua. Lehiaketak hiru maila ditu: 14 urte artekoak, 25 urte artekoak eta 25 urtetik gorakoak. Haurren maila Araba-Bizkaia mugatuko da eta beste biak Euskal Herri osora. Lanak aurkezteko epea abenduaren 21ean amaituko da. Lanak helbide honetara bidali behar dira: Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkaratea, Lekeitioko ikastola, Atea z/g, Lekeitio. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, aipaturiko lekura jo edota, 684 15 51 telefono zenbakira deitu.

- **IRUÑEA**
Pintura eta marrazki lehiaketa, Udaletxeko Hiritar Sustapen arloko sailak antolatua (Gabonetako irudiak). Iruñeko edonork har dezake parte. Lanak aurkezteko epea abenduaren 10ean amaituko da. Lanak Hiritar Sustapen arloko sailean aurkeztu behar dira (Zapateria, 40, 31001 Iruñea). Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, bertara jo.

ZINE KLUBAK



BETELU
'Harreman arriskutsuak'
21.30etan


ZINEMA-BIDEOA

- **BETELU**
'Harreman Arriskutsuak'. Eskola Zaharretan 21.30etan. Ondoren solasaldia Tolosako sexologo batekin.
- **GETXO**
'Cuando Harry encontró a Sally'. Algortako Kultur Etxean 16.30 eta 21.30etan.
- **'La venganza de los zombies'**. Erromoko Kultur Etxean 16.30 eta 21.30etan.
- **'Karate Kid I'**. Areetako Kultur Etxean 16.00 eta 20.00etan.
- **LEITZA**
'Dic Tracy'. Zinemaren 17.00 eta 19.00etan.

IHARDUNALDIAK

- **AZPEITIA**
Dantza Suelto Ikastaroa antolatuko du Itsasi Taldeak. Astelehen eta asteazkenetan izango da gaueko 9etatik aurrera. Dohainik. Interesatuok bertara azaldu.
- **IRUÑEA**
IPESek antolatutako ikastaroa. 'Taller encuentro en comunicación personal', Josu Cabodevillak emango du abenduaren 13tik aurrera.
- **IPESek antolatutako ikastaroak.** 'Espresio ikastaroa' abenduaren 9an hasita. 'Bizitza historiak' Bernabe Sarabiak emanik, abenduaren 13 eta 14an. Informazio eta matrikula: IPES, San Migel, 8-2º. 22 59 91.

IHARDUNALDIAK



IRUÑEA
Espresio
ikastaroa

BESTELAKOAK

- **DURANGO**
Umeen irakurketa zaletasuna indartzeko 'liburutegi' bat antolatu du BERBARO elkarateak. Horrez gain, Euskal Herriko idazle eta adituek hitzaldiak, bideo emanaldiak, emango dituzte, umeei irakurketa zaletasuna eta liburuen erabilpena zelan egin behar den azaltzeko, besteak beste. Guztiz hori Pinondo etxean.
- **26. Euskal Liburu eta Disko Azoka.** Goizeko 11etatik aurrera, 'Esan Ozenki Records', 'Igela' eta 'Elkarren' azken disko eta liburuen aurkezpene. 12.00etan mahaingurua: 'Nobela beltza euskal literaturan'. Partaideak: Gotzon Garate, Xabier Kintana eta Xabier Olarra. 17.00etatik aurrera, AEK, 'Erein', 'Etor' eta 'Pamielaren' liburuen eta 'Zurgai' aldizkariaren azken zenbakien aurkezpene. 18.40etan 'EGUNKARIAK' igarotako urtearen azalpena. Partaideak: Joxemiel Zumalabe, Martin Ugalde eta Pello Zubiria. 19.00etan mahaingurua: 'Erotika eta Euskal Literatura'. Partaideak: Amaia Lasa, Ramon Etxezarreta, Edorta Jimenez, Andoni Egaña, Aitor Arana. Azokaren ordutegia: goizez 10.30etatik 14.00etara, eta arratsaldeaz 16.30etatik 21.00etara.

- **GETXO**
Euskal Herrian Euskarazek antolatutako ekintzak. 12.30etan trikitilariak eta bertsolariak Tellagorri plazan. Ondoren tortila lehiaketa Los Chopos parkean. Gaueko 10.30etan Julio Kageta eta Ezkixu taldeen kontzertua Txiki eta Otaegi plazan.

- **LARRABETZU**
Mendi irteera Atxartera. Bihar izango da. Irteera goizeko 9etan plazatik. Arratsaldeaz Durangoko Liburu eta Disko Azokara. Hori Bai Gazte Elkarateak antolatua.